

KULTUR AGENDA

Martxoak 17. ostirala - Martxoak 26. igandea



Seme jeloskorra

Hilaren 17tik 19ra bitartean Grappa taldeak "Muac!" izeneko antzeziana taularatuko du Lugaritz kultur etxean. Urtarrilean "Cierra la puerta que tengo Freud" obra umoretsua zuzendu eta gero, Toni Alba antzerkigilea komedia berri honekin datorrigu Donostiara. Antzeziana hamaika urteko haur baten sentimenduel buruzko hausnarketa da; haur jeloskorrak, izan ere, ama alargunaren ezkongaiak uxatu nahi izango baititu. Emanaldiak, iluntzeko 20.30etan hasiko dira.

Kongoko giroa Kursaalean

Hilaren 22an, asteazkena, Kongoko Les tambours de Brazza taldeak kontzertua eskainiko du Kursaaleko ganbara aretoan. Talde honetako dantzari eta musikariek, beren arbasoen errituak eta egungo erritmoak uztartzen dituzte zuzeneko emanaldietan. Les Tambours de Brazza taldea 1991n sortu zen, Emile Biayenda-ren zuzendaritzapean. Afrikako taldeak hiru disko ditu merkatuan, eta bere ikuskizuna kantuan eta perkusiozko musika tresnetan oinarritua dago. Kontzertua iluntzeko 20.30etan hasiko da.



Ezin Izan Altzan

Hilaren 18an, larunbata, hardcore kontzertua egingo da Altzako auzo etxean. Bertan Ezin Izan eta Atxantatu taldeek jardungo dute. Ezin Izan donostiarrek "Nora goaz?" izeneko diskoa kaleratu zuten duela urte eta erdi pasatxo Cooperación Records zigiluarekin, eta disko horretako kantu asko entzun ahal izango dira Altzako emanaldian. Kontzertua iluntzeko 21.00etan.

Stefon Harris Quartet Gazteszenan

Hilaren 23an, osteguna, Stefon Harris Quartet taldea ariko da Egiako Gazteszena aretoan. Askoren ustez, 27 urte besterik ez dituen Stefon Harris jazzaren historiako bibratonista onenen parean dago jadanik. Stefon Harrisek duela bi urte sortu zuen Egiara bisitan datorrigun taldea, eta "A cloud of Red Dusk" lan filosofikoaren ondoren, "Black action Figure" izeneko diskoa berria kaleratu zuen, bere musikaren alderik samurrena erakutsiz. Harrisek hainbat sari jaso ditu orain arte egindako musika ibilbidean. Esaterako, Jazziz aldizkariak "talentu berri onenatzat" jo du. Stefon Harris Quartet-en emanaldia gaueko 20.30etan hasiko da.

